

## Ganix Lasa Erlek bere Tesia irakurri du

2015/09/29

Irailaren 25ean, goizeko 12:30etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Ganix Lasa Erle Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Mondragon Unibertsitateko Ikastetxe nagusiko Areto Nagusian. Tesiaren izenburua Eyeface: Nueva herramienta de evaluación de ideas conceptuales para productos y servicios basados en la experiencia de usuario eta tesi zuzendaria Daniel Justel. Gainera, Bikain Cum Laude kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zen:

Mahaiburua: Maria Rosario Vidal Nadal (Universitat Jaume I) Dk. And.

Mahaikidea: Rubén Rebollar Rubio (Universidad de Zaragoza) Dk. Jn.

Mahaikidea: Isabelle Hupont Torres (University Pierre et Marie Curie) Dk. And.

Mahaikidea: Luis Mariano Matey Muñoz (Centro de Estudios e Investigaciones Técnicas de Gipuzkoa (CEIT) y Universidad de Navarra (TECNUN)) Dk. Jn.

Idazkaria: Ester Val Jauregui (Mondragon Unibertsitatea) Dk. And.

Tesi honek Eyeface izeneko tresna multimetodo berri bat garatzen du, ideiak esperientzien fiseinuaren fase kontzeptuarean ebaluatzeko, bi gailu biometrikoren konbinazioan oinarrituta: Eye-tracking eta Facereader.

Tesiak Eyeface gailua balioztatzen du esperientziak ebaluatzeko tresna gisa, eta enpresen prozesuetan integratzeko baldintzak betetzen ditu. Eta gainera, Eyeface toolkit izeneko eredu bat proposatzen da ebaluaziorako, tresna DBZren esperientziak diseinatzeko prozesuan integratzeko.

